



GOIZUETAKO UDALA

MIRIAM AROZENA SAN MIGUEL
Goizueta Udalako Ordezko Idazkaria

NEUK ZIURTATUA: Goizueta Udalbatzak, 2022ko otsailaren 22an, egindako bilkuran, besteen artean, erabaki hau hartu zuen

10.GESERLOCAL SL UDALEKO ERAKUNDE INSTRUMENTAL DEKLARATZEA.

Geserlocal S.L. NUKFk eta Zangozako, Erriberriko eta Lizarrako udalek sortutako merkataritza-sozietatea da, Nafarroako toki entitateei nahitaezko diru-bilketaren alorrean zerbitzua emateko. Egun, Geserlocalek bere helburu sozialaren barruan dauden bestelako zerbitzu osagarriak ematen dizkie toki entitate horiei.

NUKFk Sozietatearen kapitalaren %97 du eta gainontzekoa aipatu udalei dagokie.

Orain arte, Geserlocalek beste zerbitzu batzuk eman dizkie Nafarroako toki entitateei kontratazio araudiaren arabera esleitze akordioen bidez.

Kontuan hartuta kontratazioari buruz indarrean dagoen araudia eta botere esleitzzaileei eta erakunde instrumentalei buruz dauden aurreikuspenak, bereziki Kontratazio Publikoari buruzko 24/2014 Zuzentaraua eta apirilaren 13ko Nafarroako Kontratu Publikoari buruzko 2/2018 Foru Legea, Sozietate honi erakunde instrumentalaren izaera esleitzea posible da ez soilik haren kapitalean parte-hartzea duten udaletan baizik eta NUKFren kide diren toki entitateetan ere, Federazioa sozietatearen titular nagusia delako. Horrenbestez, erakunde instrumentala izateko baldintzak bete egiten dira:

1.- Sozietatearen kapital guztia publikoa da.

2.- NUKFk eta horri atxikitako toki entitateek, federazioaren bitartez, batera egiten dute Sozietatearen gaineko kontrola.

3.- Geserlocalek bere jardueraren funtsezko zati bat bitarteko propio gisa esleitu duten toki entitateentzat egiten du.

Hala jakinarazi du Nafarroako Kontratazio Publikoko Batzordeak 1/2021 txostenean.

Aurrekoa kontuan harturik, NUKFren Batzorde Betearazleak irailaren 14an egindako saioan erabaki zuen Geserlocal Federazioari atxikitako toki entitateen erakunde instrumental bihurtzea hala erabakitzen duten toki entitateetan.

Horrenbestez, Nafarroako Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 8.2.d) artikuluan xedatutakoari jarraiki,



GOIZUETAKO UDALA

UDALBATZAK AHO BATEZ ERABAKI DU:

1. Geserlocal S.L GOIZUETAKO toki entitatearen erakunde instrumental deklaraztea aipaturiko Foru Legearen 8. artikulua xedatutakoaren ondorioetarako.
2. Adieraztea enkarguek nahitaezko diru-bilketari, isunen kudeaketari, kontabilitateari eta sozietatearen xedearekin bat datozen beste batzuei dagozkien prestazioak har ditzaketela barnean.
3. Honako erabakia NUKFri eta Geserlocali jakinaraztea eta Nafarroako Kontratazio Atarian argitaraztea.

Honela jasota gera dadin eta behar den lekuan ondorio egokiak sor ditzan, ziurtagiri hau luzatu eta sinatzen dut Alkate Jaunak ontzat emanik, Goizuetan 2022ko martxoaren 25ean

ALKATEA
Unai Miranda Berroeta

IDAZKARIA
Miriam Arozena San Miguel